



Esp.-kodea: 2016SAPL0005

**UDAL PLENOA**  
**Ez ohiko Bilkura**

**BILKURA DATUAK**

EGUNA: 2016/05/31	TOKIA Udaletxea
HASIERA ETA BUKAERA ORDUA 17:00 - 18:00	

**BILDUTAKOAK:**

Lehendakaria: María Ubarretxena Cid (EAJ-PNV)

Zinegotziak: Ibon Arrupe Aldecocca (EAJ-PNV)  
Juan Ramon Mendieta Garay (EAJ-PNV)  
Ander Garay Zabaleta (EAJ-PNV)  
Amaia Ceciaga Garmendia (EAJ-PNV)  
Juan Karlos Garitano Ezkurra (EAJ-PNV)  
Amaia Azpiazu Aramburu (EAJ-PNV)  
Anuska Ezkurra Zubizarreta (EAJ-PNV)  
Eneko Barberena Mondragon (EH BILDU)  
Amaia Larrañaga Galdos (EH BILDU)  
Eneko Fernandez Ortiz de Luzuriaga (EH BILDU)  
Urki Larrea Ibabe (EH BILDU)  
Jose Luis Encinas Jose (EH BILDU)  
Oscar Garcia Horrillo (PSE-EE)  
Victoriano Fuentes Noguera (PSE-EE)  
Anabel Legaz Canflanca (PSE-EE)  
Igor Urizar Murgoitio (Baleike)  
Eva Abuin Bideburu (Baleike)  
Juan Luis Merino Sanabria (Irabazi Arrasate)

Idazkaria: Amaia Gorrotxategi Zubizarreta

Beste funtzionario batzuk: Iñaki Balzategi Garai, Kontuhartzailea.

**BILDU EZ DIREN** Maialen Zabaleta Madinabeitia (EH BILDU)  
**UDALKIDEAK:** Itxaro Artola Lizarralde (EH BILDU)

**BERTARATZE** .Jose Luis Encinas Jose (EH BILDU) etorri zen 17:55etan bertaratu da  
**ETA IRTEERAK:** bigarren puntuari dagokion mahaikide titularren zozketa egin ondoren  
ordezkoen zozketa egin aurretik.



---

Esp.-kodea: 2016SAPL0005

---

**M. UBARRETXENA (Lehendakaria):** Arratsaldeon denoi, beno gutxi gorabehera zinegotzi guztiak gaude hemen, eta Plenoari hasiera ematera goaz.

Alkate naizen heinean niretzako ohore bat da gaur zuek hemen egotea eta zuen ahotik daukazuten proposamen eta lanketa guztiak entzutea.

Hemen etorri zarete gaur Arrasate herri eskola, institutuko eta arizmendi ikastolako umeak eta badakit arrasatek aurrera egin dezan jasangarritasunaren bidean ba lanean jardun duzuela. Duela 13 ikasturte hasi zineten agenda 21eko proiektuarekin, proiektu desberdinak lantzen iaz mugikortasuna landu zenuten eta gero niri tokatu zitzaidan Kulturaren zuekin egotea orain dela gutxi ia egin zenituzten proposamenen erantzun bat ematen, ikusi ez dezagun udaletxea egiten dituzuen eskaerak, gero ez diezela paper bustian gelditzen eta aurten bizitzeko herria izan duzue lanketa gai ezta?

Eta ez naiz asko luzatuko nolako izan behar duen Arrasate 50 urte barru, zuek zarete etorkizuna eta ziur nago egin dezuten eta egingo dezuten lanarekin denon artean Arrasate jasangarriagoa bat izango dugula eta ondo iruditzen bazaizue ba zuei emango dizute hitza eta gu hemen gaude prest eta gogoz zuei entzuteko. Eskerrik asko.

## **1.- ESKOLAKO AGENDA 21 BIZITZEKO HERRIA PROIEKTUA: KONKLUSIOAK, PROPOSAMENAK ETA KONPROMISOAK.**

**Gazteluondo: Ainara Etxebarria**

Arratsalde on!

Gaur hemen gaudenok Arrasateko Herri Eskolako, Institutuko eta Arizmendi Ikastolako (Gazteluondo Gunea, Arimazubi Gunea, Sta Teresa Gunea eta Gaztelupe Gunea) ikasleak gara. Ikastetxe horietako 6-18 urte bitarteko ikasle guztiok jardun dugu aurtengo ikasturtean Eskolako Agenda 21 lantzen.

Eskolako Agenda 21aren bitartez saiatzen ari gara Arrasatek aurrera egin dezan jasangarritasunaren bidean, eta gure esku dagoena egiten.

**Arrasate Herri Eskola: Ametsa Jansen**

Duela 13 ikasturte hasi genuen proiektua eta denbora luze horretan gai hauek landu ditugu: zaborra, ura, energia, kontsumoa, publizitatea, ekitatea, zarata eta uhin elektromagnetikoak, elikadura jasagarria, bioaniztasuna bi urtetan, iaz mugikortasuna eta aurten bizitzeko herria izan dugu gaia.

Kurtso honetan asko izan dira egindako lanak eta aktibitateak, bai gure zentroetan, bai Ingurumen Eskolan, bai herriko hainbat txokotan, baina, zuek ideia bat egiteko, adibide gisa hemen zerrendatzen ditugu jarduerak:



---

**Esp.-kodea: 2016SAPL0005**

---

### **Arimazubi: Eneko Pereda**

- Irailean Udalak antolatutako Mugikortasun astean parte hartu genuen, eta batzuk aste horretan eskolara oinez joateko konpromisoa hartu genuen eta Ingurumen eskolako irakasleekin eskolara goizean oinez joan ginen, esperientziaren bukaeran gure esfortzua saritzeko hamaiketako izan genuen.
- Gaiaren aurkezpena egin genuen kurtso hasieran, bideo eta aurkezpen batzuk ikusi genituen gure herriko hainbat aspektuei buruz.
- Gure ikastetxeetan diagnostikoa egiteko inkesta batzuk bete ditugu guztion artean, eta ondorio interesgarriak atera ditugu. Zentroetan txoko berdeak sortu ditugu. Eskola inguruak aztertu ditugu, bai aspektu fisikoak bai aspektu sozialak.

### **Institutua: Jorge Da Silva**

- Herriko kaleetan inkestak bete ditugu, eta herritar askoren iritzia jaso ondoren, oso konklusio interesgarriak atera ditugu.
- Duela bi urte jarritako txori habiak aztertu ditugu, eta berriak jarri ditugu. Zergatik desagertu diren asko ere aztertu dugu.
- Herriko berdegune eta egoteko tokietako ekipamenduak (parkeetako jolasak, natura, eserlekuak, zakarrontziak,...) aztertu ditugu, eta gaur duten egoera baloratu.
- Ingurumen Eskolako ortutxoetan hainbat lantxo egin dugu, eta bertan dagoen biodibertsitatearen txokoa bisitatu.

### **Gazteluondo: Ainhoa Espinosa**

- Ortuaren proiektuarekin jarraitu dugu aurten; Elikadura jasangarria landu genuenean, aukera izan genuen Garagartzako ortuetara joateko, eta aurten ere ortu ekologiko horiek erabili ditugu, eta laster gai izango gara gure produktu ekologikoak lortzeko. Ortu horiek zergatik diren ekologikoak jakin dugu: zein ongari erabiltzen den, tresnak, zomorroak usatzeko moduak, ortuko laguntzaileak (animaliak eta landareak), eta abar.
- Udalako Ingurumen Eskolan ogia egin dugu gure eskuez, oso esperientzia polita eta aberasgarria guretzat; gero etxean gure ogitxoak erakutsi ditugu, eta jan, noski.



---

Esp.-kodea: 2016SAPL0005

---

#### **Arimazubi: Iker Arnaiz**

- Janariaren jatorria eta energia kontsumoa aztertu ditugu, zenbat kilometro egin behar duen elikagaiak askotan gure etxera ailegatzeko, eta zenbat energia gastatu behar dugun horretarako.
- Gure herriko baserri auzoak aztertu ditugu, eta bertan ekoizten diren produktu batzuk: ogia, esnea, gazta,....
- “Arrasate 50 urte barru” lehiaketan parte hartu dugu; gure herria urte horiek pasatu ondoren nola ikusten dugun adierazi dugu, eta orokorrean nahiko positiboak izan gara.

#### **Gaztelupe: Lorea Fernandez**

- Ondo ikasi dugu hondakinak nola sailkatu behar ditugun, bai kalean bai etxean.
- Gure eskola inguruan landareak landatu ditugu, eta gero zaindu.
- Udalako basoa aztertzen ibili gara, eta konturatu gara babestu beharreko altxor bat dugula.
- Herrian gazteentzako dauden ekipamenduak ere aztertu ditugu: gaztetxea, lokalak, ludoteka, gaztetxokoak, eta abar.
- Janariaren jatorria eta energia kontsumoa aztertu ditugu, zenbat kilometro egin behar duen elikagaiak askotan eta zenbat energia gastatu behar dugun horretarako.
- Ikusi dugu Arrasaten zer eredu dagoen kontsumitzeko (denda tradizionala, merkataritza zentroak, azoka, denda ekologikoak, eta abar), eta jabetu gara kontsumo arduratsuak garrantzi handia duela.

#### **Arrasate Herri Eskola: Hugo Chinarro**

'Bizitzeko herria' gaia aztertu dugunean, konturatu gara arazo asko agertzen direla (gehienak gure herriko bizimoduarekin lotuta) eta denok egin genezakeela zerbait hori guztia konpontzeko.

Ikasle guztiok parte hartu dugu orain aurkeztuko dizkizuegun ondorioak, proposamenak eta konpromisoak egiten. Lehendabizi ikasgela bakoitzean adostu ditugu, gero ikastetxe bakoitzeko ikasgeletako ordezkarien arteko batzarrean, eta amaitzeko, hemen aurkeztuko dizkizuegunak ikastetxe guztietako ordezkarien arteko batzarrean adostu ditugu.



---

Esp.-kodea: 2016SAPL0005

---

### Gaztelupe: Andoni Urrutia

Hemen aurrean gauden ikasleak lehen aipatu ditudan ikastetxe guztietako ikasleen ordezkariak gara. Orain entzungo dituzuen proposamenekin eta konpromisoekin Arrasateko bizi kalitatea hobetu nahi dugu, hau da, Arrasate hobe lortzen lagundu nahi dugu.

### ARRASATEKO UDALBATZARRERAKO KONKLUSIOAK, PROPOSAMENAK ETA KONPROMISOAK

#### Institutua: Julen Alcalde

“Bizitzeko Herria” gaia landu dugu ikasturte honetan, eta gure herriko aspektu asko aztertu ditugu. Mugikortasuna lantzen jarraitu dugu, eta kurtso hasieran herriko ikasle batzuek parte hartu genuen Mugikortasunaren aste barruan eskolara oinez proiektuan, eta aste horretan helduez lagunduta oinez joan ginen eskolara, eta gero batzuek jarraitu dugu bakarrik joaten kurtsoan zehar. Esperientzia honekin oztopoak eta arriskuak ikusi ditugu gure kaleetan: kotxeak askotan gaizki aparkatuta daude, eta espaloietan topa ditzakegu, abiadura ez dela errespetatzen, kaleak pasatzerakoan oinezkoentzako bideetan ikuspen gutxi dago, eta abar. Horregatik guztiatik proposatzen dugu: **“eskola inguruak seguruagoak egitea, eta neurriak hartzea aipatu ditugun oztopo eta arrisku guztiekin akabatzeko”**.

Gure aldetik prest gaude halako proiektuan parte hartzeko. Lagun taldeak egingo ditugu eskolara oinez joateko. Oinez mugitzearen onurak azalduko dizkiegu gure ingurukoei, eta animatuko ditugu oinez mugitzera.

#### Arimazubi: Mirari Plazaola

Kurtso honetan ere herritar asko elkarrizketatu dugu, haien iritziak jakiteko; esan digute hobekuntzak egin behar direla gure parke eta plazen egoerari buruz: aterpe gehiago jartzea, zuhaitz gehiago, umeentzako zabu egokiak jartzea eta hiri altzariak nagusientzat egokitzea. Beraz, proposamena da **“udal departamentuetan hori guztia kontuan hartzea herria antolatzerakoan”**.

Guk ez ditugu gaizki tratatuko herriko ekipamendu publikoak, eta jolasteko lekuetako altzariak eta zabuak ondo zainduko ditugu.

#### Sta Teresa: Ander Regodesebes

Arrasateko toki zehatzak aztertu ditugunean arazo konkrituak agertu dira. Horien aurrean proposamen zehatzak ere planteatzen ditugu:



---

Esp.-kodea: 2016SAPL0005

---

- Aztertutako hainbat parke ez dira irisgarriak, edota sarrera gehienetan oztopoak dituzte: Gorostiza parkea, Alfontso X Jakintsua, eta abar; beraz, eskatzen dugu toki hauetan azterketa egitea eta arazoak konpontzea.
- Parke batzuetara bizikletaz iristea nahiko zaila edo arriskutsua da: Alfontso X Jakintsua, Munar plaza, e.a
- Hainbat plaza eta parketan iturria falta da, adibidez Kurtzetxiki eta Usaetxe plazan. Proposatzen dugu toki hauetan iturriak jartzea.
- Seber Altube plazako komunak asko eskertzen dira, baina parke gehienetan komunak falta dira: Biteri plaza, Arimazubi, ahateen parkea, eta abar.

#### **Sta Teresa: Yara Moto**

- Arrasateko jolas parkeetan ez dago zaburik elbarriei egokiturik. Gure ustez, haur horientzat ere ekipamendu egokiak egon beharko lirateke.
- Hainbat jolas tokitan ez dago bizikleta aparkalekurik; adibidez, Zaldibarren, Kurtzetxiki plazan, Gorostizan eta herriko plazan, eta ekipamendu horiek beharrezkoak ikusten ditugu.
- Biteri plazako aterpea asko eskertzen da, baina hondatuta dago eta arriskutsua izan daiteke. Plaza horretako iturriaren txorrota luzaroan egoten da martxan, eta ura alperrik gastatzen da. Eskatzen dugu bi arazo horiek konpontzeko, eta plaza jolasteko espazioa dela aitortzea.

#### **Sta Teresa: Luken Jimenez**

Guk gure aldetik konpromiso batzuk hartu ditugu: iturriei eta komun publikoei erabilera egokia emango diegu.

- Konturatu gara Arrasateko kaleetan eta egoteko lekuetan hormigoia nagusitzen dela, berdegune eta zuhaitz gehiago nahi dugu.
- Santa Barbaran eta Alfontso X Jakintsuan zakarrontziak falta dira; problema hori konpontzea ez da zaila izango.
- Beharrezkoa ikusten dugu kotxeen sarrera mugatzea hainbat plazatan (Alfontso X jakintsua eta Munar); honela, guk espazio horiek erabili ahal izango ditugu.
- Herrian zehar mugitu garenean, eta ibai ertzak ikusi ditugunean, konturatu gara toki askotan zuhaitz eta landaretza oso gutxi dagoela; badakigu toki askotan zuhaitzak ezin direla landatu, baina ertzetako inpaktu bisuala gutxitzea bai ikusten dugu posible, eta hori eskatzen dugu.

#### **Sta Teresa: Muskan Naveed**

Gure herriko osasun, hezkuntza eta kultura zerbitzuak oso egokiak iruditzen zaizkigu, baina hainbat aspektu konkretu aztertu ondoren, hobetzeko proposamenak planteatzen ditugu.

Gazteentzako aisialdirako dagoen eskaintza aztertu dugunez, konklusio asko ere atera ditugu; hona hemen azpimarragarrienak:



---

Esp.-kodea: 2016SAPL0005

---

- Gazte gehienek jarduera fisikoa egiten dute. Udal zerbitzuaren eskaintza ondo da orokorrean; taldeka kirola egiteko eskaintza nahikoa dago, baina banakako jarduera gehiago falta da, eta naturan egiteko jarduera ere gutxi dago.

#### **Arrasate Herri Eskola: Ainhoa Aranegi**

- Orokorrean emakumeen eta gizonezkoen eskaintzak kopuru berdina du, baina emakumeek ez dute aukerarik pilotan parte hartzeko. Gure proposamena **da banakako eta naturan egiteko jarduera handitzea, 16 urte baino lehenago uztea gimnasia joatea, eta pilotan emakumeak apuntatu ahal izatea.**  
Guk kirol eskaintza handitzen bada, ondo aprobetxatuko dugu, eta neskak prest gaude pilotan hasteko.

#### **Institutua: Uday Pelagia**

- Konturatu gara Musakolako skate parkean hobekuntzak egin behar direla; euria egiten duenean busti egiten gara aterperik ez dagoelako, eta lurrian porlana falta da; eskertuko genuke, **arazo horiei aurre egiteko, udalak azterketa bat egitea eta konponbideak bilatzea.**

Guk noski ekipamendu hori errespetatuko dugu, eta ondo erabiliko dugu.

#### **Gaztelupe: Miren Lizarraga**

- 15-18 adineko neska-mutilentzat herrian ez dago apenas lokalik, eta ondo egongo litzateke gazteleku eta aisialdirako eskaintza gehiago egotea. Asko **eskertuko genuke zine emanaldi gehiago antolatzea gazteentzat, bai aire librean eta baita leku itxietan ere, baina beti prezio egoki batean gure poltsikoetarako.** Zerbitzuak eta leku berriak erabiliko genituzke poz-pozik.

#### **Arrasate Herri Eskola: Naomi Etxeberria**

- **Herriaren erdialdean eta auzoetan, kalean, leku estaliak behar dira, bankuekin, haur eta gazteak egoteko eta biltzeko.**

Gure aldetik erabilpen egoki bat egingo genuke, eta martxan jartzen diren aktibitateetan parte hartzeko prest gaude.



---

Esp.-kodea: 2016SAPL0005

---

### **Gazteluondo: Galder Otxoa**

Guk argi dago bizitzeko herri atsegin bat nahi dugula, eta horretarako prest gaude gure laguntza emateko; Arrasate herri atsegina da jadanik, baina konturatu gara gauza asko daudela hobetzeko. Hurrengo urteetan gure lanarekin jarraituko dugu, eta foro honetara gure ekarpen txikiak ekartzen.

¡ESKERRIK ASKO!

### **K.FERNANDEZ:**

Orain entzun dituzue gure ikasleak baina hobeto ulertzeko komentatu duten guztia prestatu dugu bideo txiki bat bost minutukoa bakarrik eskatzen dauela alde horretan dauden guztiak mugitzea beste alde honetara bestela ez duzue ezer ez ikusiko eta igual itxiko dugu leiho hori. Hobeto ikusteko.

### **M. UBARRETXENA (Lehendakaria):**

Benetan eskertzeko da egin duzuen lana eta asko gustatu zaigu bideoa eta orain bide batez mahairen beste alde honetan gaudenoi tokatzen zaigu hitza hartzea eta bueno txanda zabalduko dut beste zinegotziak eta zerbait esan nahi baldin badute. Orain delako momentua. Zein hasiko da?

### **A.EZKURRA (EAJ-PNV):**

Arratsaldeon guztioi. Ongietorri berezi alkateak egin dizuen bezala bai gaur hona etorri zareten gazte guztioi, irakasle guztioi eta bueno lehenik eta behin Alkateak esan duena berretsi gure esker ona egin dezuten lanagatik, gaur hona ekarri dezuten konklusioetan ikusten genuen nola ba mugikortasun gaia jorratu dezuten, hirigintzako herri antolamendukoak uste dut hemen bat baino gehiagok apunteak hartzen egon direla zuek egin dezuten eskari guzti horiekin bai kirola, bai kulturataz aritu zarete, gazteriarentzat aisialdi gune ezberdinak eskatuaz. Bueno gure aldetik esatea zuek gaur hona eskatzera edo konklusio hauek kontuan hartuko ditugula bai aurreratu nahiko genizuke ez dakit ia zuek ikastetxeetan komentau dizuen ikastetxeko zuen arduradunak zeren eta bihar bertan, ekainak batetik uztailaren 8ra bitartean ideia lehiaketa bat justu jarriko dugu martxan bai esperantza parkean, arguinen eta baita ere biteri parkean hemen zentroan ba pixkat zuek daukazute aukera gaztetxoak eta baita helduak izango dezute izango dute aukera baita gai hauei buelta bat emateko eta zuen ideiak paper batetan idazteko aukera izango duzue ba nola ikusiko zenukete batez ere bi parke hauek ez?

Orduan, hemendik luzatzen dizuet gonbita benetan parte hartu dezazuen bai zuek eta bai zuek etxean esan gurasoei baita beste gauzatxo bat esaten zenuten neskek ezin dugula pilotan jokatu nola ez. Hitz egin dugu pilota elkarteak hemen kulturako zinegotzia Ander daukagu hau betaurreko mutil hau da, Ander, kaletik ikusten duzuenen berari galdetu behar diozute kirol kontuak eta bueno noski atea zabalik daukazute, neska guztiak daukagu, neska, emakume guztiok daukagu pilotan jolasteko eta bueno batek daki agian, etorkizunean Arrasaten txapeldun bat izango dugu pilotan bai neska edo bai mutilen





---

**Esp.-kodea: 2016SAPL0005**

---

bat eta bueno berriz berrestea gure esker ona Arrasate bizi baten etorkizunean ere zuek ezinbestekoak zarete eta eskerrak eman eta behintzat laguntza eskatzen dizuegu bide honetan lanean jarraitu dezagun. Mila esker eta baita helarazi esker ona zuen ikaskideei suposatzen dut gaur hemen ez zaudete guztiok ikaskide guztiei ere esker ona eta zuen irakasle eta bueno arduradun guztiei. Mila esker.

**M.UBARRETXENA (Lehendakaria):**

Eskerrik asko Anuska. Norbaitek hitza hartu nahi du?

**J.L MERINO (IRABAZI):**

En castellano. Enhorabuena a todos por el trabajo que habéis hecho a lo largo del año sé que vais muchos años haciendo vuestros trabajos. Sois los ojos de los mayores es que muchas veces nosotros vamos como locos y no vemos esos pequeños detalles o grandes detalles que nos habéis apuntado esta presentación y todo lo que habéis dicho, esperamos que sigáis tomando conciencia con la sostenibilidad y el medio ambiente y poco más. Que sigáis así y ya les diremos al equipo de gobierno que tomamos nota de esto y se lo recordaremos de vez en cuando. ¿Vale? Eskerrik asko.

**M.UBARRETXENA (Lehendakaria):**

Eskerrik asko Juan Luis. Norbaitek gehiago Eneko.

**E.BARBERENA (EH-BILDU):**

Gure aldetik be eskerrak ematea. Egia esan, izugarrizko lana egin duzue oso aspektu zehatzak aipatu duzue bideoa ere ederra da eta ni nenbilen gogoratzen geu eskolan gauzen garaia ia pasau dira urte batzuk gero eta gehiago eta akordetan naiz ni behintzat baneukala amets bat zala buztingile izatea ez? Eta zeramikako piezak egitea buztin zati txikitxoak batuta gero errealitatea da oso torpea naizela eta beti oso pieza zatarrak irtetzen jaten baina gaur zuei entzunda halako ariketa bat eginda ez aipatu duzue ongari berba Garagartzako ortuekin eta nik uste dut agenda 21 eta zuek zariela etorkizunerako ongaria.

Aipatu duzue ere bai zela izango dan gure herria 50 urte barru eta zuen moduko ekintzari esker. Gure herri hobe bat izango dala. Aipatu duzue energia kontsumoa, eta guri zalantza barik energia handia ematen dozku ikustea zuek ere arduratzen zaretela herriko arazoez batzuetan edukitzen dugu sentazioa jendeari ez jakola inporta eta ez da hola justo kontrakoa eta aipatu duzue oinez joatea eskolara ez? eta oinez ibiltzea askotan holako ametsekin da oztadarra atzetik joatea moduan ez?

Sekula harrapatu ez duzun utopia bat baina azken finean inportanteena ibiltzea da. Ez besterik ez, eskerrrik asko eta ondo izan.

**M.UBARRETXENA (Lehendakaria):**



---

Esp.-kodea: 2016SAPL0005

---

Eskerrik asko Eneko. Igor.

### **I.URIZAR (BALEIKE):**

Ongi etorri guztioi. Eta eskerrak ematea hemen hona aurkeztu zarien eskola guztietako umeei. Gustatzen jaku pila ikustea zuen lana eta zuen borondatea Arrasate hobe bat lortzeko eta adibidez, niri gehien gustau jatena ingurumeneko konpromisoa jasangarritasun batekin, mugikortasun osasuntsu batekin, elbarriekin, berdintasunekin ikusita zuen bezalako umeen daukagula itxaropena ematen dozten jarraituko dugula gizarte hobe baten bila.

Eta konturatu naiz gauza ugari ikusten duzutela igual nagusiak galdu dugula kontzientzia hori ikusteko beste modu baten, beste ikuspegi batetik eta be bai beste asunto batzuetan daukatzuela gu baino aurrerago zauziela eta espero dugu jarraitzea Hurrengo urtean zuek ikustea zuen lanaren jarraipena eta zuen borondate ona eskertzea.

### **M.UBARRETXENA (Lehendakaria):**

Eskerrik asko Igor. Norbaitek gehiago hitza nahi du. Ikusten da gauza pila batekin etorri zaretela. Etxeko lan pila bat jarri dizkiguzue aipatu dituzue iturriak, estalpeak, naturaren naturarekiko ba naturan ekintza gehiago nahi dituzuela egin eta bueno guk saiatuko gara hemendik ba gure departamentu teknikoetara zuen eskaera guztiak trasladatzen eta ahal ditugun heinean betetzen.

Udala ere bueno poliki-poliki badabil bide bat egiten ba esate baterako Udala-Besaideko bidea egiten ari gara, hor iturri bat eta esparru bat berreskuratuko da eta hor edukiko duzue aukera leku polit batean ekintzak egiteko edo jolastera joateko, parke bat ere estaliko dugu laster eta bueno Anuskak esan duen bezala zuen ekarpenak espero ditugu beste bi parke berritzeko ze Juan Luisek esan duen harira edo Igorrek edo Enekok egia da, agian helduek ez ditugula ikusten gauzak zuek ikusten dituzuen bezala eta horregatik zarete hain garrantzitsuak eta horregatik da hain garrantzitsua zuen ikuspuntua ere guk presente edukitzea eta zuen ikuspuntuari garrantzia ematea. Eta besterik gabe, bueno uste dut denon aldetik hitz egiten dotenean esaten dotenean eskerrak ematen dizuegula benetan oso lan ona egin duzuela , zuek eskaerak kontuan izango ditugula, gero egingo dizuegu hemendik urte betera ba deskargua esanez, zer bete dugun eta zer ez dugun bete eta bete ez duguna zergatik bete ez dugun eta mila esker benetan. Jarraitu bide honetatik lanean eta ea danon konpromisoarekin ba hemendik aurrera ez eta etorkizun batean Arrasate orain baino jasangarriagoa egiten dugun.

Eskerrik asko guztioi eta txalo bero bat.



Esp.-kodea: 2016SAPL0005

---

**2.- 2016KO EKAINAREN 26AN EGINO DIREN DIPUTATUEN BILTZAR ETA SENATURAKO HAUTESKUNDEETAKO HAUTESMAHAJETAKO KIDEEN ZOZKETA**

Lehenengo eta behin 2016ko ekainaren 26an egingo diren diputatuen biltzar eta senaturako Hauteskundeetako hautesmahaietako kideen zozketa egin zen, kide titularrena (I. ERANSKINA). Ondoren, ordezeko kideen zozketa egin da, kide titularrei dagokionean, Bergarako Hauteskunde Juntak eskusa alegazioak onartuz gero, postuak hutsik geratzen badira erabiliko da bigarren zerrenda hau (II. ERANSKINA)

Eta beste gairik ez dagoenez, Udal Plenoburuak, arratsaldeko 18:00tan, amaiera ematen dio bilkurari. Eta nik Idazkariak hori guztia ziurtatzen dut akta hau jasoz.

Arrasaten, 2016ko maiatzaren 31a

IDAZKARIA

LEHENDAKARIA

Amaia Gorrotxategi Zubizarreta

María Ubarretxena Cid